

marante

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN

Gaixotasunean “duintasuna bilatzea” aldarrikatu du Lertxundik

Idazleak bere emaztearen minbizia izan du abiapuntu ‘Zu’ (Erein) eleberrian

✎ Juan G. Andrés
📍 Ruben Plaza

DONOSTIA— Bernard Shawen aipu batekin bukatu zuen atzoko aurkezpena Anjel Lertxundik: “Bere buruaz eta bere garaiaz hitz egiten duenak, mundu osoaz eta garai guztiez hitz egiten du”. Eta horixe bera egin du idazle oriotarrak Zu (Erein) izeneko eleberrian. Heriotza eta sufrimendua daude lanaren muinean eta Inazio Mujika editoreak nabarmendu zue-nez, gai horiek aurretik ere jorratu ditu Anduk, besteak beste, *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) eta *Zoaz infernura, lastana* (2008) liburuetan. Oraingoan ere, fikzioa jo du baina errealitateki abiatu da, narrazioaren protagonistak eta Lertxundik “arazo bera baitute”: haien bikotekideek minbizia dute.

Diagnostikoa 2012ko uztailaren 19an jaso zuten Lertxundik eta emazteak. Handik hiru egunetara, hondartzara joan ziren eta beren haserrearen itzaso zakarraren kontra kanporatzen saiatu zen idazlea. Etxera iritsi eta orduantxe izkiriari zituen lehen “apunteak” gaixotasunari buruz. Antzeko kasuetan gertatzen den bezalaxe, lehen erreakzioa “erabat logikoa” — honako galdera hau egitea izan zen: “Zergatik niri?” Haserre leundu eta denbora pasa ahala, baina, buelta eman zioten galderari: “Zergatik ez niri?” Une horretan jakin zuten prest zeudela “etsipenari adio esateko”, egoera onartzeak “beti irekitzen baitu ate bat”.

‘ARS VIVENDI’REN ALDE Heriotza eta gaixotasunari buruz idazteak egilearen sufrimendua arindu du — “batzuetan bai, beste batzuetan ez” — baina “oro har”, balio izan dio “egunerokoa eramaten ikasteko”. Nobela bat egin duela ez du ukatzen, baina “dietario” gisa definitu zuen Lertxundik. “Nola-bait, gertakari guztiak haragituak dira, baina horretaz idazten dugunean, elaboratu egiten ditugu, laburtzen ditugu aspergarria ez izateko”, adierazi zuen. Bere ustez, “idazkuntzan” eta narrazioaren “elaborazio” horretan dago bere liburuaren fikzioa, “asma-

tutako ‘gauza gutxi’ baitago: “Egon-go da elaboratua, baina asmatutako oso gutxi, gure eguneroko bizitzan zentratua da”.

Eleberriko emazteak Zu izena du, “urte asko barru gogoratuko den aurkikuntza bikainenetarikoa”, Mujikaren ustez, “zu horretan kabitzen baitira minbizia eta sufrimendua pairatu duten guztiak”. Bizitza errealean bezala, narratzailea senarra eta idazlea da, baina Lertxundik bi ahots erabiliz desberdindu nahi izan ditu: senarra gisa hitz egiten duenean, lehenbiziko pertsonan aritzen da, eta idazle bezala jokatzear, hirugarren pertsonan, distantzia handiagoz balorazio literarioak, gogoeta filosofikoak eta abar eginez: “Pertsona bakar bati bi talaletatik begiratzeko modua da”.

Horiek horrela, gure kultura eta heziketan hain hedatuta dagoen *ars moriendi* deitutakoaren kontra egin nahi izan du Lertxundik eta nobelan “garatu” duen ideia guztiz kontrako da: “Hil, hil egingo gara, eta momentu bat izango da, baina bitartean, den-dena bizitza da”. Horregatik, gipuzkoarrak honakoa aldarrikatu du: “Bizitzaren ikasi eta saiatu, *ars vivendi* praktikatu, une txarrenetan eta momentu zailenetan ere... Cesare Paveseke zioen bezala, bizitza dugu lanbide”. Ildo horretan, Kenzaburo Oe idazle japoniarraren kasua ere aipatu zuen. Hark ere une latzak bizi izan zituen bere semea arazo zerebralarekin jaio zenean, baina azkenean konturatu zen “gaitzaren erdian, muturreko egoeretan ere, duintasuna bilatu behar dela”. Onartu zuenez, “bidaia” honetan “oso presente” izan ditu Thomas Mann idazlearen *Mendi magikoa*, Albert Camusen *Izurritea eta Caligula*, eta Susan Sontagen metaforak, baita Imanol Zurutuza eta Joxe Aranzabalen lanak ere.


Mujikak iritzi zionez, “zauri egiteraino idatziz du Anjelek”, eta autolaguntza liburuak ez bada ere, “irakurleari lagundu egin diezaioke, trantzetik pasatu ala ez. Halaber, minaz eta sufrimenduaz aritu den arren, “ez da liburu ilun, triste eta beltza, argia, soseguzkoa eta bizi puntuzkoa baizik”. ●

“Une txarrenetan ere, bizitzaren ikasi eta saiatu behar dugu, baita ‘ars vivendi’ praktikatu ere”

ANJEL LERTXUNDI
Idazlea

“Zauri egiteraino idatziz du Anjel Lertxundik, baina ez da liburu ilun, triste eta beltza”

INAZIO MUJIKA IRAOLA
Editorea



Anjel Lertxundi, atzo, Donostiako Alde Zaharrean.